



Esp.kodea: 2021LERA0002

Gaia: PAUSO BERRIAK 2021 DAVID RASO  
Hasiera eguna: 2021/04/13

## ZIURTAGIRIA

Ana Belen Hidalgo Corral andrea, ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIA

NEUK ZIURTATUA:

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko apirilaren 23an egindako bilkuran, Alkatezak emandako eskurantzzen eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

**“Pauso Berriak 2021: David Raso Montemayor-en praktikaldia berritzeko proposamena (2021LERA0002)**

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Hezkuntza eta Enplegu Batzordeburuaren ondoko proposamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“2021eko apirilaren 12an Gureak Inklusio Fundazioak eskaria aurkeztu du berea den Pauso Berriak programaren bitartez David Raso Montemayor beste urte betez praktika aldiari jarraitzeko Arrasateko Udalean.

2020ko apiriletik 2021ko apirila arte eginiko praktika aldiaren balorazio fitxa bat luzatu zaie Pauso Berriak programaren bitartez David Raso Montemayor burutzen ari den praktikekin zuzeneko lotura daukaten Udal sailei. Hau izan da jasotako erantzuna:

- Ondo baloratzen da Davidek egiten duen lan ekarpena. Berak egin ezean beste langileren batek egin beharko zituzkeen.
- Programaren antolaketari egokia irizten diote.
- Praktikaldiarekin orain arte moduan jarraitzea ondo ikusten dute.

Honetatik ondorioztatu daiteke:

- Badagoela Daviden praktika aldiarekin jarraitzeko interesa Udaleko bulegoetan
- Orain arteko antolaketarekin jarraitu daitekeela.

<b>Kodea</b>	H21/00484	<b>Udala</b>	ARRASATE/MONDRAGON
<b>Data</b>	2021/apr./29	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAALSH3.9.4yq6
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAALSH39.4yq6">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAALSH39.4yq6</a>		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2021LERA0002

Gaia: PAUSO BERRIAK 2021 DAVID RASO  
Hasiara eguna: 2021/04/13



Honenbestez, hauxe proposatzen zaio Tokiko Gobernu Batzarrari:

- **LEHENA.-** Gureak Inklusio Fundazioak egindako eskaera onartzea, eta ondorioz, David Raso Montemayor-en Pauso Berriak programari lotutako praktikaldia beste urte betez luzatzea, Udaleko idazkaritzan eta liburutegian kokatuta, bulegoko laguntza lanak burutzeko.
- **BIGARRENA.-** Praktikaldia arautzen duen Udala eta Gureak Inklusio Fundazioaren arteko hitzarmena berritzea, 2021eko apirilaren 23tik 2022ko apirilaren 23 arte.
- **HIRUGARRENA.-** Udalaren diru ekarpena 2021eko urte osorako 5.062 €tan finkatzea, hiru zatitan ordaintzeko lauhileko bakoitzaren amaieran, behin Gureak Inklusio Fundazioak Arrasateko Udalari epealdiari dagokion jarraipen txostena aurkeztuta eta Udalak berariaz onespena emanik, alde biek hitzartutakoa iraungi artean.”

Eta honela jasota gera dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2021eko apirilaren 29an.

O.E.

Alkatea



<b>Kodea</b>	H21/00484	<b>Udala</b>	ARRASATE/MONDRAGON	
<b>Data</b>	2021/api./29	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAALSH3.9.4yq6	
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAALSH39.4yq6">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAALSH39.4yq6</a>			
Dokumentu honen ballotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu				